

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Azken komunioa

Xabier Lete zuzenean / Azken kontzertua.

Erreteria 1999-IX-25 (CD bikoitza).

Diskoetxea: A&M Kultur Promotora.

Musikariak: Xabier Lete, Pascal Gaigne, Txema Carces, Pello Ramirez, Joxan Goikoetxea, Karlos Gimenez.

XABIER LETEREN *Azken kontzertua* bere azkeneko komunio handia izan zelakoan nago. Erreterian gauzatu, bi partetan emana, bi CDtan jasoa heldu zaigu. Hari baten bila ibili naiz komunio gogoangarri haren oihartzunak zabaldu eta partekatzeke. Aitortu dezadan hasteko eta behin: musikan neofito naiz, beraz, nire hari musikala ahul samarra dukezu.

Goraipatu ditzadan hasmentan bost musikariak, euren soken eta teklen doinu trebe-ausart-herabeak goratu ere. Bostekoaren musika-noten uztarketak aho zabalik uzten nau. Bat-bederaren emana apartekoa begitandu zait, eta guztiena, batera, sotiltasunaren emaria. Hainbestearino liluratu nau emaitzak, ezen, kantuak estudioan moldatuak ote ziren pentsarazi zidala une batez. Hots, musikariek berek pasarte zenbait berriz ere joak zirela eta egungo teknikarien eskutik kantak berrosatuak ote ziren. Koitadu halakoa! Ez andereak, ez jaunak, kontzertuan jotako notak entzun ziren legez ditugu entzungarri. Pascal Gaigneren notak magistralak dira, Joxan Goikoetxearen eta Pello Ramirezaren notetan ezteki kulunkatzen zara aldi berean. Txema Carcesen baxua presente dago betiere, nabarmendu barik baina.

Karlos Gimenezaren nota(k) ezin nabarmendu gabe aipatu, orde: bikaina. Xabier Leteren inoizko grabazioa duzu *Azkeneko*, Leteren hitzak eta Gimenezen musika

moldaketak –hainbat kantaren konposaketa, barne– berezko nortasunaz uztartu dituen. Bi CDtan, emanaldia 11 + 10 musika piezaz gorpuztua dago, hitzak eta doinuak mihiseta harilkatuak geratu dira behin betiko; autorearen 20 predi-

kuz edo aitzinsolasez apaindua. Xabier Letek ez zuen, bizirik zegoela, *Azkeneko* hau argitara eman nahi. Emaizta herioren ere bada modu batez, ezin heriotza eta bizitza bereizi poeta honenganako gure irudimenean.

Pertsonok barne eta kanpo bizipenek osatuta gaude, eta kantuotan halaxe ageri ere oiartzuarraren izaera: *Biografia*, *Malkoak euri balira*, *Agian*, *Zuk badiozu*, *Jardin bat zuretzat*, *Xalbadorren heriotzean*, *Ni naiz*, *Nafarroa*, *arragoa...* eta *Lizardi!* kantetan dautza bere baitatik baitarako hitzak. Bere barnetik haragoko oihartzunak berriz, Habana, Txile, Katalunia, Paris, Pio Baroja, George Brassens eta Jacques Brelengan aurkitu dituzu.

Pentsa dezakezu betiko kantak daudela bilduman. Eta halaxe dituzu. Alabaina, emaria iturri zaharretik heldu den ur berritua duzu. Xabier Leteren izatearen elikagai zaharrak, solasek eta kantez utzitako irudi hilezinak: gorputz eta zuhaitz baten tristura eta pozaren abararak. Oiartzungo poeta-kantariak azkeneko arnasekin ordaindu nahi izan zizkigun antzinako zorrak.



Laudio

Liburu azoka martxoaren 23tik apirilaren 1era, Lamuza plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!